

Bertsolari eta 'squatter'

JOAN MARI TORREALDAI



BERTSOLARI berri baten aurpegia? Bertsolaritzaren aurpegi berri bat? Zer da Jesus Mari Irazu, aurreko igandean Oretetan jokatu zen Xendean pelar sarian irabazle atea zena? 19 urteko mutila, Larraulgo baserri batean jaioa, filosofo ikaslea, eta 'squatter' edo 'okupa'.

Baserritar izatea ez da nobedade bertsolariren munduan. Unibertsitateko ikasle izatea ere ez gaurko bertsolarirengan: ia % 8 dira ikasle. Agian bai, ordea, kazetaritza edo filologia ikasi beharrean filosofia ikaslea. Dena den, bada nobedade, eta ez txikia, bertsolari bat 'squatter' edo 'okupa' izatea.

Erdia baino gehiago langile kualifikatu (% 33) eta ugazaba (% 21,6) den bertsolariren kolektiboan 'squatter' bat ez da eguneroko ikusten. Zur eta lur geldituko zen bertsolaria bat baino gehiago Xendelari sariaren irabazle goardizibilek abandonaturiko koartelkilo batean koadrilar bizi den horietakoa dela jakitean.

Bernardo Atxagaren gogoko bertsolaria litzateke hau. Gogoan dut nola salatu zuen behin gaurko bertsolaria integratuegi daudela gizartearen. Zera zioen: 'bufoiarena' egin behar duela bertsolaria, hau da, gizartearen kanpalkidetik hitzegin gizaritari, gizaritearen jokuan sartu gabe bera.

Badugu hemen integratugabearen adibide bat. Joseba Irazuren ia herrikide eta izenkidea. Problema da, orain, bertsosaleen gehingoa nola identifikatzen den Jesus Mari Irazurekin eta zenbait bertsolari gazteren jarrera, jakzera, bizimolde eta bertsokararekin.

Bertsolariren kolektiboa eklektikoa eta heterogeneoa da. Zorionez. Hala eta bertsosaleena ere? *Siadeco*-ren azterketak argituko al digu!

Hauteskunde zaletasunaz

LUZIEN ETXEZAHARRETA



HAUTESKUNDEEK jendearen interesa, aztien kiliak eta alderdi politikoekin mekanik belar metapetik ateratzen diren orduan beste ibaieritzean eserita gogoeta gosaiek bere tiria dakarte.

Alderdi ezkeriar batzuek azpimarratzen dute Hitlerrek boterea 1933an hartu zuela % 34 bozekin, eta begia Le Penen lorpenei izatua daukate. Honen agerpen publikorik ez dute onartu nahi, demokrazia omen eskaintzen duen eskubide oinarritzakoari bihurtuta bat emanez. Ez da gaurkoa eztabaidatu zeren aspaldian «ez libertaterik libertatearen etsaiei» slogana errepikatzen baita.

Aljerako jende zintzoenak hein horretan daude zeren FISEko islamistek «demokrazia baliatu nahi bait dute demokrazia ehortzeko». Altabada armada baten mutilen libertatearen babesa uzteak badu buruhausterik.

Ipar Euskal Herriko abertzaleak deliberatuak dira hauteskundeetan parte hartzea. Duela ez hainbeste urte sistemaren zepo bat zirela zeukaten: indartzeko bidean direlako seinale zitura. Ez dira guztiak konforme hala ere: ezkeriar deklaratuak diren Patxa eta Oldartzek ez dute parte hartuko, baztertuak izan direlako hauteskundeetako neozikaketariki. Karrikan dabilta beste alderdiek utzi ildoetan beren demokraziarako bideak urratuz.

Herri honetan ez du inork eskatzen ez parte hartzea hauteskundeetan. Altabada Euskal Herriko lehen alderdi politikoa osatzen dute etxen egonen diren horiek.

EL CORREO ESPAÑOL

Kezkatutakoen milonga

Nire abiapuntua, bada, zertxobait negatiboa zen Arregi proiektua zela eta, baina artista, idazle eta trikitilari gehiengoaren protestak gogoetara bultzatu eta hasierako nire jarrerak alda erazi egin dizkit. Kultur Kezkan bildutako pertsona argien eta Kultura Saileko funtzionarien artean, zalan-tzarik gabe azken hauen alde agertzen naiz. Azken finean, Arregiren erabaki gutziz tinkoa txalotu egiten dut.(...)

Benetan garrantzia duena, euskal kulturaren monopodia aspaldirik jasotzen zituen dirulaguntzarik gabe uztea da, edozein atzaria jarrita.

JON JUARISTI

egin

EAJK PSOEk bezain beste erantzukizun dauka

EAJK, orain ere, PSOEek bezain



FERRERES / LA VANGUARDIA

besteko erantzukizuna dauka, Euskaldunako kasuan bezala, Egitasmoa Gasteizko adostasunarekin egin ezean 'aurrez aurre' edukiko dituztela esan arren. Beldur handia dugu atzo EAJK Madrileko Gobernuari eta PSOEri egindako kritikiek ez ote duten

zerikusi handirik izango Autonomi Itun ezagunarekin, non EAJK orain Altzairu Berezien eta AHVren gaia modu demagogiko eta interesatuen erabiliz, ordainak lortzen ahalaginduko den ber sinadurarako. ETArek atentatuak beti politikoki bere alde

erabili baditu Madrilen edo oraindik ere horrela erabiltzen baditu, jenduarren kondenatu egiten dituen arren, badirudi orain Altzairu Berezietako eta AHVko langileak erabili nahi dituela bere helburu politikoak lortzeko Autonomi Ituna ezagunaren bidez.

DANIEL UDALAITZ

ZUZENDARIARI

Urte honetako ihauteriak direla eta...

Ihauteriak ailegatzeko ari zaizkigu, herriaren nahi, kritika eta sentimenduak agerzaren eraginez, egunerokotasunaren normatibazio eta monotonian ate itxiak puntatik puntara zabaltzeko aukera emanez.

Errebindikazioa eta jaia lotuaz, geure baruan daukagun amets eta sentimendu libertarioak aintz askatuaz. Baruan eta loturik edukitzeko garaia bukatuak dekretatzen dira. Naturaltasunez eta satiraz betirik agertzeko garaia heldu dira.

Kalera! herri gutzia. Kalea okupatzen. Kalea birmoldatzen. Ume eta zahar. Heldu eta gazte. Eme eta ar.

Hortzak agertuz. Eta horretaz ere, hain zuzen, barre eginez. Herriaren poza erantziz. Herri zapaldu honen agintariak izendatzen diren horiei, seinaltatuz. Bereaiek ezin izango bait dute ulertu, inoiz ere, herriaren poz eta tristizeiak, negar eta ironiak. Herri hau aspaldi saldu bait zuten, txakur eta borrorreoi, txakur berriak sortuz, txapel gorriekin apainduz.

Mozorratu gaituzen eta min egin diezueguz, min gehiena egiten dien era eta gertaeraz. Lendu dezagun geure irajainazioa, ea sortzen dizkieguz, ultzera dexentez aparte, frankismo garaiko

ihauterien debekatu egoerara bueltatzeko gogoak.

Herri bat gara eta Europako tribu zapaldu zaharrena, hain zuzen. Beraz, aurreko paragrafoekin bat baldin bazatoz, Hernanin antolatzen ari garen *Indiada Herrikoian*, edo ta edozein konpartsa edo ta iniziatiba herrikoietan parte hartzea, herria zaituz.

Hernaniarra ez ba zara, irajainazio eta ekimen berdinez, ihauteriari eutsi!, 92. urte madarikatu honi dagokien erantzuna emanez. Pena merezi du, neure uste xehearentzat.

MATTIN LEGASSE
Hernani (Gipuzkoa)

Ertzainei ez zaizkie gustatzen ile gorriko gazteak

David, 16 urte, IEE-ko 2. ikasturtean, maitagarria, sentikorra, pixkat herabertia... akats bakarra, belarritakoak daramatza eta ile gorria.

Otsailak 15 larunbata, gaueko 12ak. Ermita ondoan (Oretetan), David neska-laguna etxeratzen lagundu ondoren dator. Kalean ez zegoen inor... beno bai, ertzainak 'marabiloso-en' patruila bat zegoen, jakin badakizue Oretetan inauguratu berria dugun koartelilokoak.

— Nora zoaz sasoi honen-

tan? (ertzainak)

— Nere neska-laguna lagundu dut eta etxeruntz noa, hemen bertan dago eta (David-ek)

— NAN atera! (ertzainak)

— Ay, ba!, ez daukat hemen, baina hementxe bertan bizi naiz (David-ek)

(Ekintzak jarraitzen du, baina gero eta gogorrago... bultzakada batzuk gehiago, ukabilkadak...)

— Ba, begira hi, ilea bezain gorri hire mofleteak jarriko dizkiagu!

(Aizu, eta egia zen, ertzainak bizarra moztzeko iragatzat hartu eta David-en masailak odoletan jartzen ditu. 'Ekin-tza' bukatu ostean David korrika etxera joan zen, 100 metro eskas. Ez dago atxiloteta ofizialik, ezta edukitzerik...)


Hau dun/duk hau! Hau ei ez zaizkie gazteak asegin, are gutxiago langilean auzokoak baldin badira eta ile gorridunak eta belarritakoak «ni te kuenton» txoi!

Gertaera hau ekintza isolatua izan daiteke? Ez dugu uste! Polizia 'ugari' ditugu eta guztiak harrokeriz betirik eta azken garai honetan gure (norena, hi?) Corcuera Ministroaren Super-legearen arabera eta Euskal Poliziaren legearen arabera guz-tiz babesturik sentitzen dira.

ZUMALBIDEKO
INSTITUTUKO
LANGILEEN
ASANBLADA

Errenteria (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Ikastolak eta Buesa

Euskal Eskola egin nahi dela askori diot aditzen, baina ez dute behar bezala, nonbait, elkar entenditzen; eta begira, oilarren gisan mokoka nola dabilten. Hasi egoki agintzen, indarrak batera biltzen (Bis). Bi euskadiren mamu sorgina ez baldin bada gunditzen, eskola ona izango denik niri ez zait iruditzen.

RUFINO IRAOLA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIEN ETXEZAHARRETA

IANKI URIA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxe: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / 79 / Faxe: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapurdik / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11